

**2010EKO MARTXOAREN 15EAN GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamabosta

HILABETEA: Martxo

URTEA: Bi mila eta hamar

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak eta laurden.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada González
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko otsailaren 26ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK ESLEITZEA. Udal lokalen eta eraikinen garbiketa zerbitzua esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2010eko martxoaren 12an Kontratazio-Mahaiak egindako proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

I.- 2009ko azaroaren 13ko Gobernu Batzordeak, udal-lokalen eta eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko deialdia egitea erabaki zuen, horretarako baldintza administratibo eta teknikoak onartuz.

II.- Deialdia, 2009ko azaroaren 18an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 21 egunetan ondorengo enpresak aurkeztu ziren:

CLECE, EULEN, AUZOLAGUN, GOIBER, SAMSIC eta GURBISA

2. Kartazala 2009ko abenduaren 18an publikoki ireki zen eta 2010eko otsailaren 23an, teknikoak egindako txostenaren arabera, Kontratazio Mahaiak 2010eko otsailaren 26an egindako bileran formula matematikoaren bidez

baloratzen ez diren adjudikazio-irizpideei, ondorengo puntuazioa ematea erabaki zuen, enpresak aurkeztu dituen eskaintzei:

LIZITATZAILEAK	Eskaintzaren kalitate teknikoa	Hobekuntzak	GUZTIRA
CLECE	12,5	8,75	21,25
EULEN	12,5	2,5	15
AUZOLAGUN	12,5	1,5	14
GOIBER	12,5	4	16,5
SAMSIK	25	2,41	27,41
GURBISA	6	2	8

2010eko martxoaren 1ean, proposamen ekonomikoari buruzko 3. kartazala ekintza publikoan ireki zen. Proposamenetik kanpo beste dokumentazioa aztertzeko, hau da, aplikatu beharreko hitzarmena, urteroko aurrekontua, orduko prezioaren banaketa eta lan-kategori bakoitzeko prezioen zerrenda, txostena emanda gero, egiaztatu dena da, lizitatzailer guztiak, GURBISA ezik, ez dutela urteko aurrekontuan aurrekusi orduko prezioaren banaketa hobekuntzen balorazioari dagokionean. Honek plegu administratiboaren 17. artikuluan adierazitakoa ez du betetzen. Horren ondorioz erabaki da, hobekuntza-atalean 0 puntu ematea aipatutako enpresari izan ezik.

Aurkeztutako proposamen ekonomikoa eta beraien balorazioa ondorengo da:

LIZITAZIOA LICITACIÓN	ESKAINTZAK / OFERTAS				
PRECIO LICITACIÓN	CONTRATISTA	PROPUESTA ECONÓMICA	BAJA OFERTA	COSTE OFERTA IVA INCLUIDO	PUNTOS OFERTA ECONÓMICA
18,64 € / hora (antes de IVA)	Clece	17,45 €/h	6,36 %	287.829,48 €	48,71 p.
	Eulen	18,08 €/h	3 %	298.112,33 €	47,01 p.
	Auzolagun	18,38 €/h	1,39 %	303.061,60 €	46,24 p.
	Goiber	17,62 €/h	5,47 %	290.819,17 €	48,24 p.
	Samsic	17,00 €/h	8,79 %	280.575,14 €	50 p.
	Gurbisa	18,30 €/h	1,82 %	301.803,79 €	46,44 p.

Aurreikusitako adjudikazio-irizpideekikko lizitatzailleek guztira lortutako puntuazioa:

EMPRESAK	Eskaintzaren kalitate teknikoa	Hobekuntzak	Prezioa	GUZTIRA
CLECE	12,5	0	48,71	61,21
EULEN	12,5	0	47,01	59,51
AUZOLAGUN	12,5	0	46,24	58,74
GOIBER	12,5	0	48,24	60,74
SAMSIC	25	0	50	75
GURBISA	6	2	46,44	54,44

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaia kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Udal-lokalen eta eraikinen garbiketa zerbitzua zerbitzua SAMSIC enpresari behin-behinik esleitzea onartutako baldintza administratibo eta teknikoaren eta esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren arabera, eskaintako hobekuntzak barne. Esleipen prezioa honako hau da: orduko 17,00 € BEZik gabe (urtean, 241.875,12 €, BEZik gabe).

Bigarren. Zerbitzua hiru urterako esleitzen da eta beste hiru urte gehiago luzatu ahal izango da, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita.

Hirugarren. Hamabost laneguneko epean behin-behinik esleipena jakinarazten denetik kontatzen hasita, adjudikaziodunak ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

- 36.281,27 €ko behin betiko fidantza.
- Eskaini diren hobekuntzak betetzeari buruzko konpromisoa.
- Zerga eta gizarte segurantzaren betebeharretan eguneratuta egotearen ziurtagiriak.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- LOKALA EROSTEA. J. M. Iturriotz kalean lokala erostea.

Ezagutzera eman da, Alkateak egindako proposamena:

Gaia: lokala erostea

AURREKARIAK

Zerbitzu publikoetarako erabiltzeko, udal ondarea handitze arren, Udalak interesa du Francisco Ulanga Múgica (NA, 72.437.183) jaunaren lokala erostea. Lokala ondorengoa da:

Local de la planta baja. Es el de la derecha-izquierda según se mira al edificio desde la calle J. M. Iturrioz y ocupa una superficie de cuarenta y cuatro metros y un decímetros cuadrados, y linda: Norte, subsuelo del edificio; Sur, fachada posterior que da a la calle J. M. Iturrioz, encontrándose el portal de acceso dentro de la superficie de este local; Este, resto matriz de D. Manuel Iturrioz; y Oeste, local número dos de esta planta de José Luis Arrondo y otros, encontrándose el portal de acceso dentro de la superficie de este local. Le corresponde una cuota de participación de 1,63%.

Finca, 5260 inscrita al Tomo 1309, Libro 140, Folio 105 del Registro de la Propiedad de Tolosa.

Adostu den prezioa, 95.000 €koa denez, Gobernu Batzordeari dagokio erosketa burutzeko baimena ematea, 60.000 €ko gastua baino handiagoa delako.

Horren ondorioz, Alkateak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Francisco Ulanga Múgica jaunarena den eta aurrekarietan deskribatu den lokala erostea, LAUROGEITA HAMABOST EUROKO (95.000 €) prezioan.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

4.- INFORMAZIOA. Manufacturas Olaran-en inguruan egiten ari diren kudeaketen berri informazioa ematea.

Alkatea jaunak gonbidatuta, GOIEKItik etorri dira Manufacturas Olarango eraikinean inizatiba ekonomikoa sortzeko proposamena azaltzera. GOIEKIn enpresentzako inkubagailua dago, baina industriari zuzenduta dago. Hemen proposatzen dena aldiz, kultura munduan edota beste esparruetan sortzaile izan daitezkeen enpresei zuzenduta izatea.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) adierazi du bera ez dagoela ados planteatzen denarekin, inon ez delako erabaki Olarango eraikina zertarako erabili behar den.

Alkateak dio, azaldu dena proposamen bat besterik ez dela.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera hamaiketan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.